



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xenda-zaletasun atala
113. zka. 5 euskal hiribururen 24. Zeharkaldi Handia	Pagoeta-Donostia/2015/11/14-15

Adiskide xenda zaleok:

2012ko azaroaren 11n Listorreta eta Eskas arteko etaparekin hasi genuena amaitzera doa Pagoetako Atsedeen-leku eta Donostia arteko ibilaldi honekin, 24. etaparekin, hain zuzen. Guztira 444 km egin ditugu, eta horretarako 131 ordu behar izan ditugu, eta guztira 60 gailurretara igo gara: ez da lorpen makala!

Oraingo honetan ibilaldia oso suabea da zentzu guztietan. Pagoetako Atsedeen-lekutik irtengo gara beheraka pixkanaka Oriora iristeko. Herri honi buruzko lehenengo datuak 1180. urtekoak dira, sortu berria zen Donostia hiriko parte izatera igaro baitzen orduan.

Hala irauin zuen 1379ra arte, orduan Juan I.ak hiri titulua eman baitzion “Villarreal de San Nicolás de Orio” izenpean, eta Donostiako forua lortu zuen. Behin herri honetara iritsita, San Nikolas elizara joko dugu, eta “Santiago Bidetik” San Martin basiliza politeria helduko gara, bera da ibiltariaren zaindaria, eta Kukuarri mendiaren oinean kokatuko gara.

Donostia (8m) eta Orio (11m) artean dagoen Mendizorrotz mendiguneko gailur honek bi ibairen bokaleak banatzen ditu: Oria ibaiarena mendebaldean Orio, eta Urumearena ekialdean Donostian. Hain zuzen ere, gailur hau mendebaldean dago Orio gainean.

Hau izango da eguneko gure erronka nagusia. Kukuarri tontor apala da baina edertasun handikoa, bere malda labartsuak itsasora erortzen dira zuzenean, eta Orio eta Kantauri itsasertzaren panoramika paregabeak ditu. Gailurrean Kukuarriko Andra Mari dago, Oteiza eskultoreak egin. Gurutzea eta belardi eder bat ere badaude, normalean ardien bazkaleku. Eta hemendik aurrera beherantz jaitsiko gara eroso-eroso gure azken helmugaraino: Donostia.

Xendazaleok, animo, natura zain dugu-eta!!!

Ibilbidea: Pagoeta eremua-Donostia

Beharrezko denbora										4,45	
Goranzko desnibel metatua										525 metro	
Beheranzko desnibel metatua										656 metro	
Zeharretara egin beharreko distantzia										19.145 metro	
	Ingur un	1		Orientazioa	2		Joan-etorria	1		Esfortzu a	3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (Bus geltokia 17/24) eta Pio XII plaza (Bus geltokia 24/27)
Aurkezteko ordua	08:05 (Bilbo plaza) eta 08:10 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua	08:15 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	Ezeiza jatetxea.
Prezioa	30 euro

Izena emateko azken eguna: 2015-11-12a, 12:00etarako

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzailearik, irteera bertan behera geratuko da.
b/Eguraldiaren iragarpena larunbaterako txarra baldin bada, igandean egingo da ibilaldia.

Izen-emateak posta-helbide hauetan egin behar dira:
alahuerta@kutxabank.es / jlurretabizkaia@kutxabank.es edo telefono hauetan: 943-00.14.69
(Alberto Lahuerta-Baterakuntza eta Kostuak-969)/943-00.12.36 (Lorenzo Urretabizkaia-Gipuzkoa Sarea-5700).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-Lorenzo Urretabizkaia

